


Ozono geruzako zuloa normala izan da aurten



AZKEN 30 URTEOTAN, garai honetan gertatzen da Antartikan ozono mailaren jaitsiera. 80ko hamarkadan detektatutako egoerak alarma guztiak piztu zituen nazioarte mailan eta harrigarria bada ere, berehalako neurriak hartu ziren.

Orduraz geroztik abuztuaren amaieratik urriaren erdira bitartean Antartikan gertatzen dena arreta biziz aztertzen da, izan ere, hango atmosferan gertatzen dena ongi ulertzen ez denez, galdera asko zeuden eta daude erantzuteko, eta azkar gainera, Lurreko gaine-rako lekuetan gauza bera gertatzea nahi ez bazen.

Hori dela eta, ARGIAN azken urteotan

garai honetan Antartikan gertatzen denaren berri eman izan dugu. Aurtengoari dagokionez, iazkoa baino handiagoa izan da ozono geruzako zuloa, baina batez bestekotik hurbil. Beraz, ozono zuloak kontrolpean segitzen duela esan dezakegu. ■



Altxerriko margoak, Europako zaharrenetakoak

Altxerriko leizeko goiko gale-rian dauden margoak C-14aren metodoaren bitartez datatutako zaharrenak dira European, *Journal of Human Evolution* aldizka-rian argitaratutako artikulu baten arabera.

ttiki.com/55284
(Euskaraz)

Asma izateko aukera birramonak egindakoaren arabera

Los Angelesko Biomedikuntza Ikerketa Institutuko zientzialari talde baten arabera, haurdun dagoen emakume batek zigarroak errez gero ondorioak hirugarren belaunaldietaraino luza daitezke. Batez ere, biriketaren arazo kronikoak sor daitezkeela diote —asma esaterako—, edo arnasa hartzeko eragozpenak.

ttiki.com/55285
(Gaztelaniaz)

Bakterioen eta itsas korronteen arteko elkarrekintza

Ozeano Barean, Peru eta Txile artean, urak ia oxigenorik ez duen eremu bat dago. Hortxe bizi diren bakterioak bertako ura eraldatzen ari dira etengabe, nitrogenoa kantitate handitan sortuz. Horrek, besteak beste, karbono dioxidoa xurgatzea zailtzen du. Arabiako itsasoan antzeko zerbit gertatzen dela detektatu dute.

ttiki.com/55286
(Gaztelaniaz)

Nolakoa da Voyager zundekiko komunikazioa?

1977KO IRAILAREN 5EAN espazioratu zuten Voyager 1 zunda, eta urte batzuk geroago Voyager 2. Zunda horien zeregina espazioan urruntzea eta posible bazen eguzki sistematik ihes egitea da. Horretan ari dira, bata gugandik 19.000 milioi kilometrorra baitago, eta bestea 15.000 milioi kilometrorra.

Orduko 60.000 kilometroko abia-duran bidaiatzen ari diren bi zundek seinaleak bidaltzen dizkigute etengabe, eta horiei esker hainbat datu biltzen ari dira ikerlariak. Baina nola bidaltzen dira seinaleak? Zein motatakoak dira? Noiz arte izango da posible seinaleak bidaltzea?

Seinaleak 1977. urtean ezagutzen ziren frekuentzia handienetako irratihinak dira. Bidalketarako oso energia gutxi behar dute zundek eta Lurrean hiru lekutan jasotzen dira. Zenbat eta urrunago egon, orduan eta zarata gehiago ailegatzen zaigu seinalearekin batera eta beraz, zailtasun handiagoak izango dira. Bestalde, bateriak eguzkiaren energiari esker birkargatzen dira, baina eguzki-sistematik irtetean hori ez da posible izango. Orduan, zer? Bi aukera daude: edo akabo, edo beste izar batetik hartuko dute behar duten energia. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16